



3.41

---

Urubiko Miguel Ordeñana Berasaluze (1878-XI-5ean jaio eta 1927an hil zana) eta Gezalako Manuela Uriarte Atutxa (1884an jaio eta 1972-IV-3an hil zana). 1902 aldera ezkondu eta Maria, Norberto (txikitan hil zana), Purifikazion, Justo, jaio zanean hil zan bat, Franzisko, Felizidad eta Karmen seme-alabak izan ebezan. Mari, Justo eta Felizidad Urubin jaioak dira, baina gainontzekoak herriko etxean. Urubiko ugazabak bilbotarrak ziren eta Miguelek herriko etxea hartu eban Urubi oso zahartua egoalako. Herriko etxean 12 urte egin ebezan. Miguel bera Errosario egun batean hil zan, herriko etxean, bapatean.




## 3.42

---

Agustin Uria Bikandi, Arantzazuko Iber-bekoako Agustin Uria Bustiza (1936-IX-3an hil zana) eta Zorrontzako Maria Bikandi Etxenagusiaren (1947-I-14an hil zana) bigarren oinordekoa (Maxima, Agustin, Domingo, Luisa, Leona, Alejandro, Gerbasio, Pedro, Felisa eta Inazia), 1892-X-16an jaioa. 1925.ean Maria Atutxagaz ezkondu eta lau seme-alaba izan ebezan: Agustin, Pedro, Maria eta Jose Luis.

Agustin Uria Bikandi 1948-VIII-11n hil zan; bere anaia Pedro 1957-V-165ean (51 urteko zala) eta arreba Inazia 1955-IV-5ean, 42 urteko zala.



3.43

---

Bilboko Jose Ramon Uriguen Rementeria (Artaungo Bustinzatarrenean hazi eta hezia) eta Igorreko Basarteko Florentina Abasolo Bariazarraga. 1919 aldera ezkondu zirean (argazkia ordukoxea da) eta bost seme alaba izan ebezan: urte bigaz hil zan mutiko bat, Franzisko, Juan Miguel, Jesusa eta Zezilia. Zeziliak Arantzazuko errotako Sinforoso Bilbao hartu eban senartzat.




3.44

---

Arteako Julian Uriarte eta Igorreko Eustakia Barrenetxea Zuazo. Eustakia birritan ezkondu zan. Lenengo ezkontzakoak dira Antonio eta Franzisko Landajuela; bigarrenekoak Mari, Julen eta Dolores.

Julian (gerra aurretik Arantzazuko errementeri-etxea erosi ebana) gerran hil zan. Bere hiru seme-alabei Inglaterrara joan beharra suertatu jakeen (*Habana* itxasontzian joan zirean, bertan hamar bat hilabete egin ebela). Eustakia 1977-IV-9an hil zan, 85 urteko zala.



## 3.45

Zeanuriko Undurragako Franzisko Larrakoetxea Goioaga (1887an jaio eta 1967an hil zana) eta herri bereko Olabbarri etxeko Josefa Egiluz Goikuria (1892ean jaio eta 1969-V-16an hil). 1915 aldera Orbera ezkondu eta han jaio zirean Jazinta, Ines, Delfina, Juan Jose eta Santi. Gero Argiñako Larrabarrenera etorri eta hemen Nikolasa, Matilde eta Txomin jaioko dira.

Orduan zelanbaiteko hauzia egoan Arantzazu eta Zeberio artean Larrabarren dala eta ez dala; Nikolasa jaio eta atoa hil zan. Orduan, hileta-eleizkizunak Zeberion egin eta kontu horrek erabagi ei eban Larrabarren Zeberiotzat hartzea.

Argazkia Larrabarrenen egina da 1957 aldera.




**3.46**

---

Txoritxeko Asensio Yurrebaso Bilbao (1922-III-25ean jaioa) eta Arteako Maria Etxebarria. Igorreko Bekotxeko Juan Miguel Yurrebaso Astondo eta Txoritxeko Josefa Bilbao Larrearen bigarren oinordekoa da Asensio (Juliana, bera, Franzisko eta Gabriel). Asensio eta Mari 1955.ean ezkondu eta seme bi izan dabez, Ismael eta Juan Mari.





3.47

---

Petra Iza Bilbao eta Jose Atutxa Larrea. Jose Obako Kaudalategiko Prudenzi  
Atutxa eta Bizkerreko Mariana Larrearen semea da. Ezkondu eta hamairu  
seme-alaba izan ebezan (Maria Milagros, Felisa, Jose, Lorenza, Jesus, Gisa-  
ne, Antonio, Jesus, Karmele, Isidro, Luis, Martina eta Jabier). Zortzigarrena,  
Jesus, Arantzazura ezkonduko da Lourdes Etxebarriagaz.



3.48

---

Igorreko Lasarteko Maria Amorrortu eta Urkuzuko Bonifazio Etxebarria Uriarte. Ezkondu eta zazpi seme-alaba izan ebezan, Julia, Donato, Emilia, Simona, Franzisko, Juan eta Antonio.

Bonifaziok hartu-emon handia eukan Arantzazugaz bera izan zan eta Agilarendarren lurren administradore. Bere seme Franziskok jarraituko dau aitaren lekuan hau hiltzen danean eta ezkondu bere Arantzazura ezkonduko da Maxima Inunziagaz, Agilartarrei erositako Palazio etxera.





3.49

---

Franzisko Etxebarria Amorrortu eta Maxima Inunziaga Olabarrieta, biak Urkuzukoak. 1934 aldera ezkondu eta hiru seme-alaba izango dabez: Patxi, Lourdes eta Jesus.

Argazkian, Franzisko soldadutza garaian (1926 inguru) eta Maxima gazte tan (1930 inguru). Franzisko 1907an jaio eta 1981-X-17an hil zan. Maxima 1912.ean jaio zan.